



## I. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA Bizkaiko Foru Aldundia

### Ogasun eta Finantza Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 124/2024 FORU DEKRETUA, abenduaren 5koa, zeinaren bidez aldatzen baita Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-betebehar formalak arautzen dituen Araudia.**

Uztailaren 15eko 5/2020 Foru Arauaren bidez, ekonomia-jardueren etekinak kontrolatzeko sistema integral bat eta tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko neurriak ezartzen dira. Horretarako, aldatu egin dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Araua, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Araua eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorra. 5/2020 Foru Araua onartuta, Bizkaian aurrerapen kualitatibo bat egin da BATUZ izeneko estrategia integral horren inplementazioan, ekonomia-jarduerak egiten dituzten pertsona edo entitate guztien tributazioa kontrolatzeko, edozein delarik ere haien tamaina edo eragiketa-bolumena. Halaber, aurrerapauso bat da zergadunei tributu-betebeharrak betetzen laguntzeko kudeaketa-eredu berriak ezartzeko bidean.

Foru Arau horren artikuluetan zehar, zenbait gai lagatzen ziren edukiaren geroagoko erregelamendu bidezko garapen batera. Zeregin hori Bizkaiko Foru Aldundiaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretua onartuta gauzatu da (foru-dekretu horrek BATUZ proiektuaren zerga-betebeharrak garatu ditu), honako hauek aldatuz: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua, Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua, Bizkaiko Lurralde Historikoari dagozkion tributuak kudeatzeko Erregelamendua eta, azkenik, fakturazio-betebeharrak arautzen dituen Erregelamendua.

Halaber, Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren irailaren 8ko 82/2020 Foru Dekretuan jasotako zenbait manu garatzeko, foru-agindu batzuk onetsi dira: software bermatzailearen zehaztapen arauemaileak eta teknikoak eta software bermatzailearen erregistroan alta emateko adierazpena arautzeko; BATUZetik salbuesteko baimen-prozedura arautzeko, eta pertsona fisiko eta juridikoen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoen bidez egiteko zehaztapen arauemaileak eta teknikoak arautzeko.

Ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten erregistroen trazabilitatea eta bortxaezintasuna bermatzen dituen sistemari lotutako prozedura eta erreminta guztiak ezartzeak, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuak egiteak eta, aldi berean, dagozkien xedapen arauemaileak berrikusteak, horrek guztiak berekin dakar testu arauemaileetan zenbait egokitzapen egin behar izatea, BATUZi lotutako betebehar formalak hobeto aplikatzeko.

Hala, sozietateen gaineko zergaren zergadunen eragiketa ekonomikoen erregistro-liburua dela eta, betebehar bat gehitzen da Tributuaren arloan eragina duen bestelako informazioari buruzko kapituluan, administrazio-publikoetan integratutako entitateek betebeharrekoa; zehazki, entitate horiek erregistratu behar dituzte beren aurrekontu orokorren kontura eman edo administrazio publiko horietan integratu gabeko entitateen edo organismoen kontura kudeatzen dituzten dirulaguntzak, sorospenak edo laguntzak, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuari dagokion urtean ordainduak.

Adierazi behar da foru-dekretu honen izapidetzea arau hauetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 112/2024 Foru Dekretua, azaroaren 14koa, zeinaren bidez arautzen baita Bizkaiko Foru Aldundian generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.



Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

**Artikulu Bakarra.**— ***Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-betebehar formalak arau-petu dituen Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu zen araudi hori***

2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, d) letra gehitzen zaio Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalak arau-petu dituen Araudiaren 39 sexiesdecies artikuluari, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onartu baitzen:

«d) Administrazio-publikoetan integratutako entitateek erregistratu beharko dituzte beren aurrekontu orokorren kontura eman edo administrazio publiko horietan integratu gabeko entitateen edo organismoen kontura kudeatzen dituzten dirulaguntzak, sorospenak edo laguntzak, eragiketa ekonomikoen erregistro-liburuari dagokion urtean ordainduak. Ordainketa-agindua ematen den egunean joko dira ordaindutat dirulaguntzak, sorospenak edo laguntzak. Ordainketa-agindurik ez badago, ordainketa egiten denean joko dira ordaindutat.»

AZKEN XEDAPENA

**Azken Xedapen Bakarra.**— ***Indarrean jartzea***

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta beronen artikuluetan ezarritako ondorioak izango ditu.

Bilbon, 2024ko abenduaren 5ean.

Ogasun eta Finantzako foru diputatua,  
ITXASO BERROJALBIZ ZABALA

Ahaldun Nagusia,  
ELIXABETE ETXANOBE LANDAJUELA